ASTEKARIA | 2016ko martxoaren 11n | XIX. urtea | USURBIL | 650. zenbakia | www.noaua.eus

TOKIKOM

# noaua

**Aste honetan iritsiko dira Errigorako olio bidoiak**

**Pagazpe nagusi EHko Liga Txapelketan**

**Ostiral iluntzean "Borondateen Kriseiluak" ekitaldia**



# Mila arrazoi Mintzalagun izateko

# Tapak eta aurkibideaK prest




**Agur esan diogu 2015 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2015eko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.**

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

## Bidaiak Taldean 2016

**Irteera Lasarte-Oriatik**

Errusia
Kruzeroa Greziako irletara
Islandia
Gabonetako azokak

*Irteera guztiak talde osaketari lotuak



## Bidaiak Taldean 2017

**Irteera Lasarte-Oriatik**

Argentina
Kruzeroa Baltikoko Hiriburuetara
Mendebaldeko Kosta (USA)
Polonia
New York
Gabonetako azokak

*Irteera guztiak talde osaketari lotuak



**NOAOA BIDAIAK**
GRUPO CLICK VIAJA

Hipodromo Etorbidea 10 - Lasarte Oria
T 934 373 613 | info@noaoabidaiak.com



## Albistea iruditan

# Larunbatean ere, Udarregi zabalik

Larunbata izan arren, Udarregi Ikastolako ateak zabalik ziren martxoaren 5ean. Euskal Herriko gazte mugimenduko espresio desberdinetan dabiltzan gazteak ikastolako erdiko aretoan asanbladan bildu ziren. Datorren udazkenerako alternatiben inguruko topaketa antolatu asmo dute, eta hitzordu horri begira, parte hartze prozesu bat abiatua dute. Lehen asanblada abenduaren 19an egin zuten, Añorgako Firestone lantegi berreskuratuan. Lan talde desberdinak sortu zituzten. Bigarren asanblada larunbatean Udarregi Ikastolan. Taldeka, gai ezberdinen inguruko hausnarketarako eta ekarpenak biltzeko tartea hartu zuten.



**Euskal Herriko Gazte Mugimenduak alternatiben inguruko topaketak antolatuko ditu udazkenean. Bilkura hori prestatzeko elkartu ziren aurreko larunbatean Udarregin.**

## Laburrean

### Aste Santu aurreko azken NOAUA! martxoaren 18an

Martxoaren 18an kaleratuko dugu opor aurreko azken NOAUA!. Gero bi astez ez da aldizkaririk izango. Azken astekari horretarako ohar edo zorion agurrik baldin baduzue, erredakzioa@noaua.eus helbidera helarazteko martxoaren 14ra arteko epea izango duzue.

### Martxoaren 15ean, Mintzalagunen Topaketa

Mintzalagun egitasmoaren berri izateko aukera aparta izango dugu martxoaren 15ean, 19:00etan Potxoenean. Topaketa Etumeta-AEK euskaltegiak, Udalak eta NOAUA! Kultur Elkarteak antolatu dugu. Herritar guztiok zaudete hitzordura gonbidatuak.

### Ostegun honetan, afari beganoa gaztetxean

Animalietatik eratorriak ez diren produktuekin eginiko afari goxoa dastatzeko aukera hilero moduan, martxoko bigarren ostegun honetan, iluntzeko 20:30etan hasita Usurbilgo Gaztetxean. Otordua, borondatearen truke.

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14.00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Idoia Torregarai.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.
**Publizitatea:** Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.
**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.eus:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
**Banaketa:** Olatz Rezola, Ekhi Arrieta.
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
**Tirada:** 2.800 ale.
**Lege-Gordailua:** SS-668-96
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARARI
Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak
Euskal Herrira!

**Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.**



Imanol Ubeda

# Gerra eta bakea galdu zuten haiek

Igande gaua. Etxera iritsi eta zapping azkar batean, La Sextako *Salvados* programan "Esclavos" izeneko saioa. 36ko gerraren ondoren, "Batallón de Trabajadores" delakoetan lan egitera behartu zituzten preso hartutako errepublikazale asko (saioa galdu bazenuten, telebista kate honen web orrian duzue osorik ikusgai).

Elkarrizketatuen artean zen Luis Ortiz. Batailoi horietako batean harrapaturik geratu zen preso errepublikarra. Argitsua gizona. Esklabotza sistemaren xehetasunak emateaz gain, hausnarketa politak egin zituen kamera aurrean. "Gaur egun, 25-30 urteko gazte askok, unibertsitatean ikasitakoak tarteko... apenas dute 36ko gerraren berri. Jakin dezatela". Hori eskatzen zuen. Hirugarren Errepublikaren aldarrikapena ikustea ere eskatzen zuen –zail samar dirudiena–. Eta serio jarrita, "batailoi horiek sustengatu zutenek barkamena eska dezatela". Are zailagoa oraindik.

Esango nuke nire garaiko gazteok ere, unibertsitatean ibilitakoak asko eta asko, ezer gutxi jaso genuela. Ohiko hezkuntza eredutik at osatu behar izan dugu "memoriaren mapa".

Telebistari begira, eta Luis Ortizen azalpen argigarriei adi nengoela, Manuel Goenagarekin akordatu nintzen beste behin ere. Usurbildarra ere esklabotza sistema honen morroi izan zen hainbat urtez.

36ko gerra 'Gipuzkoa' batailoian egin zuen. Avilesen atxilotu zuten arte. Historia liburuek esango dute 1939an amaitu zela gerra. Baina Manuel Goenagaren kasuan, 1942an bukatu zen amesgaiztoa. "Batallón de Trabajadores"-eko morrontzatik libre utzi zutenean.

*Salvados*-en ikusitakoa burutik ezin kendu, NOAUA!ko hemerotekara jo dut. 2005eko udaberrian, Manu Aranburu eta Manuel Goenagarekin izan ginen hizketan. Biak ala biak, 36ko gerran gudari ibiliak. Erreportaje luze bat osatu genuen NOAUA!ren 210. zenbakian (hemerotekan duzue ikusgai).

Eskuartean dut aldizkaria. Eta berez krudela zena, are krudelagoa iruditzen zait orain. 2005ean Manuel Goenagari eginiko elkarrizketa berrirakurtzean jabetu naiz horretaz.

Avilesen atxilotu zutenean, lehen egunak Santoñan egin zituen. "Han, oso gaizki ibiltzen ginen urarekin. Santoñatik Mirandako *campo de concentración*-era eraman gintuzten eta ez nintzen ondo sentitzen". Manuel Goenagak sukar tifoidea zuen. Gaixotasuna gainditu ondoren, "Batallón de Trabajadores"-era eraman zuten, Guadalajarara. Han denbora bat egin eta gero, Kataluniako Malgrat herrira eraman zuten beharrera.

"Batallón de Trabajadores" delakoan denbora batean aritu eta gero, aske utzi eta herrira itzuli zen. Berehala Luzuriaganean hasi zen lanean. Dena bukatu zela uste zuen arren, lanean hasi eta gutxira ofizinara deitu zuten Manuel. Gerra amaitua zen baina Manuelentzat ordea ez. Gerra galtzeaz gain, bakean bizitzeko eskubidea ere ostu nahi zioten: "Trabajadore bezala ez genuela denbora osoa konpletatu eta Mirandara joateko agindua genuen". Berriz ere Mirandan izan zen lanean, eta handik Palma de Mallorcara, porlanazko fortinak egitera. Palmatik Asturias aldera eraman zuten gero, bertako aireportu bat egitera. Lugo de Llanerakoa hain zuzen.

1942an, bigarrenez itzuli zenean etxera, orduan amaitu zen gerra Manuelentzat.

Arrazoi du Luis Ortizek. 36ko gerrari buruz ezer gutxi iritsi zaigu. Zentzu horretan, euskaldunak ere antzeko gabiltza. 80 urteren ondoren, oraindik ez gaude 36ko gerrari tamaina hartzeko moduan. Eta igande gau batez, telebistari begira jabetuko gara "Batallón de Trabajadores" delakoaren izugarrikeriaz.

Usurbilen sikiera, bada Manu, Manuel eta antzeko egoera pairatu zutenen aldeko oroigarria. Askatasuna plazan eskegita.

Aritz Gorriti | Idoia Torregarai | Maialen Unanue | Ilazki Gaintza | Luis Aranalde | Luken Arkarazo | **Imanol Ubeda**

# Abian prozesuko lehen bilera

Otsailaren 20an espetxeetara antolaturiko martxak izan ziren Ezker Abertzalea murgildua dagoen Abian prozesuko lehen hitzorduak. Gero, herriz herri hainbat batzar deitu dituzte. Baita Usurbilen ere. Barne hausnarketa eta eztabaidara bideraturiko hiru saio guztira. Lehenengoa larunbat goizean egin zuten Potxoenean; "Balantze eta testuinguruaren egoeraren eztabaida" hain zuzen.

### Martxoak 19, larunbata

09:30 Abian prozesuaren baitan, batzarra Potxoenean: "Definizio estrategiko eta eztabaida eta etorkizuneko garapenaren zehaztapena".

### Apirilak 16, larunbata

09:30 Abian prozesuaren baitan, batzarra Potxoenean: "Txosten erabakitzailearen aurkezpena, eztabaida eta bozketa".



**Ezker Abertzalekoak, aurreko larunbatean Potxoenean. Hurrengo bilera martxoaren 19an izango da.**

Deitzailea: Usurbilgo Ezker Abertzalea.

## Lapurreta Laukoten



**Martxoaren 2ko goizaldean gertatu zen. Atea behartu, ateko beira apurtu eta zegoen diru apurra eraman zuten.**

# Kanpaina arrakastatsua

## ASTE HONETAN IRITSIKO DIRA NAFARROA HEGOALDEAN EKOITZITAKO OLIO-BIDOIAK

Arrakasta itzela izan du Errigoraren azken elkartasun kanpainak Usurbilen. Nafarroa hegoaldean ekoitzitako oliba olio birjina estra ekologikoa eta konbentzionala duten 5 litroko bidoiak eskatzeko aukera egon da azken bi asteotan, NOAUA! Kultur Elkartean edota Udarregi Ikastolan. Aipaturikoa, harrera ezinhobea izan du ekimenak.

Guztira, 110 bidoi, 550 litro oliba olio birjina estra saldu dira udalerri honetan. Datu bat, iaz urte garai honetan Errigorak antolatu zuen kanpaina honen baitan, 65 bidoi saldu ziren NOAUA! bidez. Eskaera kopuruan igoera nabarmena izan da beraz. Oraingoan, 90 bidoi eskatu dituzue kultur elkarte honetako egoitzan, eta 20 bidoi Udarregi Ikastolan.

### Banaketa egunotan

Errigoratik adierazi digutenez, ostegun honetan, martxoaren 10ean jasoko ditugu eskatu dituzuen olio bidoiak. Bai NOAUA!n, baita Udarregi Ikastolan ere eskaera bideratu duzuenok, martxoaren 11n, 14ean eta 15ean etor zaitezkete bidoiak jasotzera, NOAUA!ko egoitzara. NOAUA!-ko egoi–tzan bakarrik eskuratu ahal–ko dituzue. 5 litroko bidoiak jasotzerakoan egin beharko dira ordainketak. Gogoan izan prezioak: 32 euro balio du oliba olio birjina estra ekologikoko bidoi bakoitzak; 22,50 euro, oliba olio birjina estra konbentzionaldun bidoiek.




**Gurean, NOAUA!k eta Udarregi ikastolak bideratu dute Errigoraren kanpaina. Usurbilen 110 olio bidoi eskatu dira.**

NOAUA!TIK PASA JASOTZERA

***"Martxoaren 11n, 14an eta 15ean etor zaitezkete bidoiak jasotzera, NOAUA!ko egoitzara. 5 litroko bidoiak jasotzerakoan egin beharko dira ordainketak"***

### Olioaren jatorria

Honatx Kanpainan parte hartu duten olio ekoiztetxeak:

- La casa del aceite (Cascante)
- Nuestra Sra del Rosario kooperatiba (Ablitas)
- Bardea (San Isidro del pinar)
- Ekolo (Arroitz)

Informazio gehiago: errigora.eus

### Kontserba loteak maiatzean

"Eskutik eskura" banatuko dira egunotan, oliba olio bidoiak. Errigorak antolaturiko kanpaina hauen bidez, bertako produktuek "gure eguneroko kontsumo ohituretara" ekarri nahi dira. Kalitatezko produktua, euskaraz etiketatua eta bidezko prezioan eskuratu ahal izan dugu beste behin, Errigoraren "Eskutik eskura" egitasmoari esker. Eta ekimenean parte hartuta, Nafarroa hegoaldeko ekoizpena sustatzen, lurraldeen arteko harremanak sendotzen eta ingurumena zaintzen laguntzeko aukera izan da. Maiatzean hurrengo kanpaina; kontserba loteena.

## 110 bidoi eskatu dira, iazkoaren bikoitza

| Eskaera lekua | Oliba olio ekologikodun bidoiak | Oliba olio konbentzionaldun bidoiak | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| **NOAUA! Kultur Elkartea** | 47 (235 litro) | 43 (215 litro) | 90 (450 litro) |
| **Udarregi Ikastola** | 16 (80 litro) | 4 (20 litro) | 20 (100 litro) |
| **GUZTIRA** | 63 (315 litro) | 47 (235 litro) | 110 (550 litro) |

*** Taula honetan duzue Errigoraren kanpainak Usurbilen izan duen arrakastaren emaitza, zenbakitan.**






# Erraustegia, mehatxua herritarren osasunarentzat

**Argiago ezin zuten esan. Erraustegiak inguruan bizi diren herritarrentzako gaixotasunen eta hilkortasun-tasaren areagotzea dakar. Baieztapen hau egiteko "bada nahikoa ebidentzia". Ez diogu guk, osasun alorreko langileek, medikuek baizik. Eta haiena ez da iritzi soil bat, ondo baino hobeto egiaztaturiko ikerketa lan baten ondorio nagusia baizik.**

Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeko kideez ari gara. Duela gutxi, ikusmin handia eragin zuen Donostian egin zuten agerraldia eta otsailaren 24an, Aire Garbia herri plataformak antolatuta Lasarteko Manuel Lekuona kultur etxean eskaini zuten hitzaldia, taldeko kide Iñigo Suberbiola eta Maialen Berridi medikuek. Oraingoan ere ikusmina handia zen. Aretoa leporaino bete zen, lasartear, zubietar eta baita hitzordura gerturatu ziren hainbat usurbildarrez ere. Eserleku nahikoa ez zen denentzat. Gai honekiko dagoen kezkaren erakusle, zalantzarik gabe.

Arreta osoz jarraitu zuten kultur etxera gerturaturikoek, mediku taldeak emandako azalpenak. Gehienak adi-adi entzuten eta bat baino gehiago apunteak hartzen ikusi genituen. Ikerketa talde honek egin duen lanketaren edukiak mami asko baitu, eta datu kezkagarriz josia dago.



**Otsailaren 24an Lasarte-Orian eman zuten hitzaldian txiki geratu zen aretoa.**

*IKERKETA*

***"Erraustegiak jaioberrietan duen eraginari buruzko 14 ikerketa lan behatu dituzte; eta lotura esanguratsua aurkitu dute erraustegia eta jaioberrien osasunaren artean. Sortzeko anomaliak tartean, batzuk hilkorrak"***

## Kaltea, agerikoa

"Zer eragin du erraustegiak gure osasunean?" galderari erantzuten ahalegindu dira Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeko medikuok. Erantzuna aurkitzeko gutxienez 10 urteko iraupena izan duten kalitate hobereneko ikerketak aztertu dituzte. Ikerketa independenteak dira, inoren enkarguz eskatu ez direnak. Nazioarteko aldizkari eta guneetara jo dute informazio bila. Erraustegien inguruan bizi den biztanleria aztertu dute, inguruan erraustegirik ez duten biztanleriarekin alderatu, eta batu dituzten emaitzek baieztatzen dutenez, erraustegiak inguruan bizi diren bizilagunen osasunean eragiten du. Eta ez positiboki noski.

## Erraustegiaren kokagunetik 10 km-ko eremuan

Segidan adibide batzuk. Erraustegiak jaioberrietan duten eraginari buruzko 14 ikerketa lan behatu dituzte; eta Lasarteko hitzaldian ziotenez, "lotura esanguratsua" aurkitu dute erraustegia eta jaioberrion osasunaren artean; sortzeko anomaliak tartean, batzuk hilkorrak. Biztanleria orokorrari buruzko ikerketetatik jasotako datuen arabera bestalde, erraustegiak gaixotasunen %3,5eko igoera eragiten du, 3 kilometroko eremuan. Erraustegiaren kokagunetik 10 kilometrotara ere gaixotasunen areagotzea ematen da.

## Frantzian, Madrilen, Katalunian... Gaixotasun kasuak ugariagoak dira erraustegien ondoko herrietan

Frantziako Besançoneko erraustegiari buruzko ikerlan bat ere aztertu dute. Gertu bizi direnen artean, nabaria da gaixotasunen intzidentzia. Frantziatik atera gabe, 4 departamenduetan 10 urtez eginiko ikerketa batek, erraustegi inguruetan linfomen igoera eman dela diote.

Nazioartean ospea duen Madrilgo Carlos III Unibertsitateak Espainian erraustegiak eta beste industriek herritarren osasunean duten eragina aztertu dute herrika. Erraustegitik 5 kilometro baino gutxiagora, mota guztietako tumoreen intzidentzia askoz handiagoa omen da.

Katalunian, Tarragonako Unibertsitateko ikertzaile talde batek, Bartzelonako erraustegiaren inguruko lurreko dioxina maila aztertu eta dioxina maila 10 aldiz handiagoa zela ondorioztatu zuten. Erraustegia egun itxita dago, eta halere, kutsadura maila altuagoa izaten segitzen du ingurune hark.

# Toxikoak gorputzean, urte luzez

Erraustegia eta gaixotasun zein hilkortasun-tasaren areagotzea ukatzen duten bestelako ikerketa batzuk ere aztertu dituzte. Hemen, gertuan egin direnak esaterako. 2004. urtean Txingudin kokatzekoak ziren erraustegiaren inguruan, Eusko Jaurlaritzak eginiko lan bat tartean. Baita 2011n Zabalgarbiko erraustegiari buruz, Bilboko Udalaren enkarguz Euskal Herriko Unibertsitateak eginikoa ere.

Lanok behar besteko kalitatea ez dutela dio Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeak. Euren arrazoiak azaldu zituzten, Lasarteko hitzaldian. Txingudin eraiki asmo zuten erraustegiaren inguruan, hondakinak errausteak minbiziarekin lotura nahiko ahula duela dio Jaurlaritzaren duela 12 urteko txostenak. Baina medikuok diotenez, dokumentua "ondo irakurrita, onartzen da" erraustegiak airera isurtzen dituen dioxinen kutsakortasun maila handia eta kaltegarria dela.




**Mediku talde honen esanetan, "gai toxiko hauen eraginpean behin bakarrik jarrita, behin kutsatuta alegia, urteak behar dira toxikotasuna ezabatzeko".**

## Behin kutsatuta, urteak behar dira toxikotasuna ezabatzeko

Zabalgarbiko erraustegiari buruzko txostenak ere ukatu egiten du medikuon esanetan, hondakinen errausteaaren eta osasun arazoen artean loturarik dagoenik. Baina hitzaldian ziotenez, bada kontuan hartu beharreko alderdi bat; 3 urteko tartean egin zuten ikerketa. Medikuon esanetan ordea, "3 urte oso denbora gutxi da, denbora askoz gehiago behar da", 10 urte Nazio Batuen arabera, hondakinen errausketak herritarren osasunean duen eragina detektatzeko.

> *MEDIKUEN ESANETAN*
>
> ***Gorputzak gai toxikoen eraginpean jarri ondoren, gantzetan metatzen joaten dira eta zailak dira ezabatzen. "Toxikotasuna urteetan mantentzen da"***

Eta oso modu argigarrian azaldu zuten kontu hau. Gogoan izan zuten, gorputzak gai toxikoen eraginpean jarri ostean, gantzetan metatzen joan eta zailak direla ezabatzen. "Toxikotasuna urteetan mantentzen da", eta urte asko pasata, epe luzera eragin dezakete gaixotasunen bat. Gai toxiko hauen eraginpean behin bakarrik jarrita, behin kutsatuta alegia, urteak behar dira toxikotasuna ezabatzeko. Erraustegi batekin, kontuan izan, une oro egongo ginateke gai toxiko hauen eraginpean.

## Mikropartikulak, arriskutsuenetarikoak

Gai toxikoez ari garela, erraustegiek airera zer gai isurtzen dituzten ere aztertu du Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeak; batetik, denetariko gaixotasunak eragin ditzaketen metal astunak daude. Bestetik, minbizi eragile diren dioxina eta furanoak. Eta azkenik, mikropartikulak aipatu behar, txikiagoak izan arren, arriskutsuak baita. Horren erakusgarri, 1991-99 urte artean Iruñean eginiko ikerketa bat. Kutsadura maila handia ez duen hiriburu honetan Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeak behatu ahal izan zuenez, mikropartikula toxiko gehien zeuden guneetan hilkortasuna ere handiagoa zen.

## "Inor ez da kontaktuan jarri gurekin"

Ikerlan guztion arabera, argi da; Zubietan eraiki nahi duten erraustegitik gertuen bizi garen 46.000 lagun eta 10 kilometroko eremu barruan dauden 272.000 herritar, mehatxupean gaude. Ikerlari taldeak bildu duen dokumentazio guztia interesdun ororen eskuragarri jarri dute. Herritarrei informatzea eskatzen diete eta erraustegia bultzatu nahi dutenek osasuna lehenetsi beharko luketela iriztan diote. Eusko Jaurlaritzak 1998an sinaturiko akordio batek dioena gogora ekarri zuten Lasarteko hitzaldian. Arreta izatearen printzipioa; zerbait osasunerako kaltegarria bada edo horren susmoa badago, hobe dela ez egitea.

Oihartzuna izan zuten mediku taldeak Lasarten esandakoek. Baina momentuz, entzungor eginez segitzen dute erraustegia eraiki nahi dutenek. Lasarteko hitzaldira bertaraturiko lagun batek galdetu zien medikuei, ia jendaurrean aurkeztu zituzten datu guztiok ezagutzeko interesa agertu ote duen Gipuzkoako Foru Aldundiak. "Inor ez da gurekin kontaktuan jarri", izan zen medikuon erantzuna. Halere, prestutasun osoa agertu zuten, aukera sortuko balitz, Lasarten eginiko aurkezpena, errauste planta bultzatu nahian dabiltzanei azaltzeko.

# ‘Urberritzen’, berrikuntza soziala lantzen

Otsailaren 26an Hernaniko Gabriel Zelaia eraikinean egin zen eragileen arteko lehen topagunearekin, abian da Donostia-Beterri eskualdeko udalek, Foru Aldundiaren laguntzaz eta Urola Erdiko Berrikuntza, Iraurgi Berritzen Garapen Agentziarekin eta Elhuyar Aholkularitzarekin elkarlanean, Beterri eta Urola Erdia eskualdeetan berrikuntza soziala lantzeko antolatu duten Urberritzen proiektua.



Martxoaren 16an egingo dute hurrengo bilkura. Izena emateko epea zabalik da.

Iaz martxan jarritako Beteberritzen egitasmoaren segida da honakoa, bigarren fasea, ekainera arte garatuko dena. “Topagunea izeneko elkarlanerako gunea sortu da eskualdeko eragileekin batera. Gune horretan, batetik, Beterri eskualdeko tokiko garapenaren gaineko gogoeta egin eta garapen-eredu berri baterako oinarriak adostuko dira. Bestetik, eskualdeko eragileen arteko elkarlanerako proiektu berriak identifikatu eta horiek martxan jartzeko urratsak zehaztuko dira”, Elhuyar Aholkularitzak ohar bidez berri eman duenez.

Lehen saioan, proiektuaren lan-ildo nagusiak azaldu zituzten. “Lehen Topagunean prozesuaren xehetasunak azaldu ondoren, hitzaldiek eta talde-lanak hartu zuten lekukoa, eta aukera izan zen tokiko garapena sustatzeko helburuarekin beste eskualde batzuetan lanean ari diren bi esperientzia interesgarri entzuteko, Lea-Artibai eta Debagoienekoa, zehazki. Azaro Fundazioko Leire Arrizabalaga eta Bagarako Nagore Iraola izan ziren hizlariak, eta horien azalpenetatik, Beterrirako baliagarri izan daitezkeen hainbat gako identifikatu ziren taldeka. Taldeetan ateratako ondorioak oinarri, hurrengo saioetan gaian gehiago sakontzeko aukera izango da”, adierazi dutenez. Horretarako hiru saio deitu dituzte, martxoak 16, apirilak 20 eta maiatzaren 4rako.

> ELHUYAR AHOLKULARITZA
>
> *“Topagunea izeneko elkarlanerako gunea sortu da eskualdeko eragileekin batera”*

Bi eskualdeen arteko topaketa etorriko da gero, “Urola Erdiko Berrikuntza eta Garapen Agentziarekin batera, Trukegunea izeneko saioa egingo dute maiatzaren 18an, bi eskualdeek elkarrengandik ikas dezaten eta esperientziak truka ditzaten”. Urberritzen prozesua borobildu eta ikasitakoa partekatzeko, azken saio bat iragarri dute ekainerako.

## Prozesu irekia eragileentzat

Hurrengo saioen egutegia:

■ Martxoak 16, apirilak 20 eta maiatzak 4: Topaguneak.

■ Maiatzak 18: Trukegunea.

■ Ekainean: prozesu amaierako jardunaldia.

■ Datozen saioetarako izena emateko:
688 684 956 / 688 685 586
enpresa@andoain.eus

■ Informazio gehiago:
berrikuntzasoziala.elhuyar.eus

# Langabetuak kontratatu dituzten enpresentzako diru-laguntza deialdia

Martxoaren 1a baino lehen eskualdeko langabetuak kontratatu zituzten enpresak, bailarako udalak eta Lanbidek egin duten diru-laguntza deialdira aurkeztu daitezke. “Kontratuen iraupena gutxienez 3 hilabetekoa izan behar du, lanaldi osora edota erdira eta dirulaguntza lanaldi osorako bada 3.000 euro izango da, aldiz, lanaldi erdira izanik 1.500 eurokoa. Guztira, 11 kontratu burutzeko aukera dago eta, ondorioz, dirulaguntza eskatzeko aukera ere. Informazioa eskuragarri dago udaletxe bakoitzean bai web orrian baita enplegu arloko lansailetan edota bulegoetan”, berri eman du Udalak.

Eskabideak martxoaren 31 baino lehen aurkeztu behar dituzte, Andoaingo Udaleko Enplegu lansailean:
Urigain etxean
La salle etorbidea, 6 (Andoain)
943 304 221

■ Informazio gehiago:
Usurbilgo Udala
943 371 951
usurbil.eus

## Hazilan programa kudeatzeko enplegu teknikaria behar da

Usurbilgo Udaletik berri eman digutenez, “Andoaingo Udalak, Donostia Beterri eskualdeko udalen ordezkaritzan (tartean Usurbilgo Udala), Hazilan programaren kudeaketaz arduratuko den Enplegu Teknikaria kontratatu behar du”. Interesdunek, lan deialdira aurkezteko martxoaren 11ra arteko epea dute.

**Bete beharreko baldintzak:**

■ Unibertsitateko erdi mailako edo goi mailako ikasketak (Diplomatura, Gradua, Lizentzia). Enpresarekin zerikusia duten arlokoak lehenetsiko dira.

■ EGA titulua edo baliokidea.

■ Lan eskarmentua teknikari gisa tokiko garapenean, enplegua/autoenplegua eta enplegu-prestakuntzako programetan (auzolan,...).

**Lan baldintzak:**

■ Lanaldi erdira. 2016.12.31ra bitarte. Luzagarria, urtez urte, 2020.12.31ra arte.

Baloratuko diren elementuak: Prestakuntza; Lan eskarmentua enplegua eta prestakuntza alorreko sustapenean / tokiko garapena; Lantaldeen kudeaketa eta erabilera; Lanpostuarekiko egokitze maila.

**Eskaerak:**

■ Eskaera orria jarraian azaltzen den dokumentazioarekin:
A- NAN Fotokopia.
B- Eguneratutako lan-bizitzaren agiria ( Telefonoz 901 50 20 50).
D- Curriculum Vitae. Prestakuntza egiaztatua.

■ Lekua eta epea:
A- Epea: Otsailaren 29tik martxoaren 11 bitarte.
B- Egunak: Astelehenetik ostiralera.
D- Lekua: Andoaingo udala. Ataria – Herritarrentzako arreta zerbitzua.
E- Ordutegia: 9:00etatik 13:00etara.

**Informazio gehiago:**
http://www.usurbil.eus/eu/

# Umorea eta aldarrikapena, bat eginik

Astearterako deitua zuten elkarretaratzearekin amaitu dira, Emakumeen Egunari begira Matrakak Usurbilgo Talde Feministak, Usurbilgo Udalarekin elkarlanean antolatu dituen ekimenak. Irudian duzue aurreko ostegunean Artzabalen ospatu zen bertso-afaria.



**Idoia Torregarairen "esanetara" aritu ziren hiru bertsolariak: Eli Pagola, Onintza Enbeita eta Oihana Iguaran,**

## 36 usurbildar Lilatoian

Giro busti eta hotza tokatu zaie aurtengoan, 27. Lilatoian parte hartu duten 5.000 lasterkariei. Baina eguraldia ez zen inolako oztopoa izan, igandean Donostian izandako proba, festa eta aldarrikapen giroan ospatzeko. Emakumeen Egunari begira antolatzen duten kirol jarduera honek erakartzen duen parte hartzea aipatu beharra dago beste behin. 5.000 inskripzioetara heldu ostean, Lilatoia izan baino ia bi aste lehenagorako itxia zuten, aldez aurreko izen ematea, kirolprobak.com atarian. Web orrialde berean kontsulta dezakezue parte hartzaileen sailkapena. Udalerrikako bilaketan Usurbil idatzita, 36 partaideko zerrenda agertu zaigu.

## Sailkapena

Idoia Ezeiza Iruretagoiena 00:20:54
Maitane Eizagirre Bruño 00:24:44
Loli Elkano Irurtia 00:25:14
Marimar Uribe Navarro 00:26:26
Agurtzane Alkorta Urdampilleta 00:27:47
Ainara Uribe Navarro 00:28:14
Saioa Erro Aizpurua 00:28:14
Txus Iglesias Rio 00:29:30
Mari Mar Lizaso Ibarbia 00:30:56
Ane Ibargoyen Alvarez 00:31:27
Ane Bengoetxea Artetxe 00:32:01
Haira Rivero Arrieta 00:32:01
Miren Izeta Goenaga 00:32:01
Virginia Herrera Gomez 00:32:04
Marimar Martin Carpio 00:32:04
Lurdes Salaberria Garmendia 00:33:13
Alazne Olaizola Iparragirre 00:33:35
Amaia Kaperotxipi Arruti 00:33:41
Elixabete Udabe Pagola 00:34:08
Arantxita Usarralde Aranzadi 00:34:08
Yolanda Arrieta Malaxetxebarria 00:35:00
Idoia Amas Etxarri 00:35:21
Ines Circujano Morales 00:35:40
Jaione Bereziartua Errasti 00:36:24
Leire Durandegi Etxebeste 00:36:24
Maite Diez Arnedillo 00:36:25
Izaskun Goikoetxea 00:37:10
Josune Iparragirre Tolaretxipi 00:37:10
Aitziber Eizagirre Zaldua 00:37:10
Nekane Zaldua Iturriotz 00:37:10
Olatz Zuloaga Segurola 00:37:10
Olatz Altuna Zumeta 00:38:06
Amaia Atxega Zubikarai 00:39:38
Nere Eizagirre Aizpuru 00:39:38
Maite Santamaria Tejedor 00:40:17
Maite Iturbe Barrena 00:40:53



# Lehen Mintzalagun Topaketa

Egitasmoa herritarrengana hurbildu, ezagutzera eman, esperientziak partekatu eta trukatzeko gunea izan nahi du, Etumeta-AEK Euskaltegiak, NOAUA! Kultur Elkarteak eta Usurbilgo Udalak martxoaren 15erako, arratsaldeko 19:00etan Potxoenean antolatu duten Lehen Mintzalagun Topaketak.

Ekitaldi irekia izango da, herritar oro dago beraz gonbidatua, egitasmo honekin “guztiok atera dezakegu eta probetxua, batez ere euskarak”. Baina deialdi berezia egin nahi zaie, 2010az geroztik martxan den proiektu honetan parte hartu duten, parte hartzen ari diren edota baita mintzalagun izan nahi duten guztiei. Izango dute eta zer esan, eta zer partekatua Potxoenean bilduko direnekin. Gainera, orain bidelagun edo “euskaldun zaharren” faltan dira. “Baditugu bidelagunik gabeko 3-4 kide eta itxarote zerrendan daude. Horientzako ere irtenbide bat eman nahi da”.

Gaur egun, oro har 3-4 lagunez osaturiko 6 mintzalagun talde daude. Azkena duela pare bat aste osatu zuten bi lagunek.



Martxoaren 15ean batuko dira, 19:00etan Potxoenean. Argazkia: Etumeta.

MINTZALAGUN

***“Talde bakoitza astean ordubetez biltzen da, kafetxo baten bueltan. Naturaltasun osoz, sortzen diren gaiez, nahi denaz lagun arte giroan euskaraz hitz egiteko”***

Talde bakoitza astean ordubetez biltzen da, kafetxo baten bueltan, naturaltasun osoz, sortzen diren gaiez, nahi denaz lagun arte giroan euskaraz hitz egiteko. “Lagun arteko elkarrizketa naturalak izaten dira”.

## Erabilera sustatzeko tresna eraginkorra

Mintzalagunen bidez, euskara ikasten ari direnei euskaraz aritzeko esparrua zabaltzen zaie, askok ez baitute inguruan halako eremurik edota izanda ere erdaraz aritu izan baitira beti. Mintzalagunek modu nabarian eragiten du kasu batean baino gehiagotan. “Aste honetan esan digute bi lagunek, iaz euskaraz zen bilera batera joan zirela eta ez zutela ezer ulertu. Aurten berriz joan eta dena primeran ulertu dutela. Edo umea ikastolara eraman eta irakaslearekin orain bi hitz euskaraz egiten dituela beste batek. Pozgarria da”, AEK-koen esanetan. Euskaraz aritzeko esparrua zabaltzeko, Mintzalagunen jarraipena egiten dute, batez ere, “aztertzeko nola eman dezaketen beste urrats txiki bat bere inguruan, lanean, haurrekin, gurasoak badira irakaslearekin”.

## “Hiztegian, kaleko hizketan... soltura hartzen dute”

Mintzalagunek parte hartzaileei ematen dienaz ere galdetu diegu euskaltegikoei. Segurtasuna ematen diete batez ere bidaiari edo “euskaldun berriei”. Taldeko bidelagun edo “euskaldun zaharra” ezezaguna zaie hasieran. Baina euskaraz aritu ahala jabetzen dira bidaiari edo euskaldun berriak, bidelagunari adierazitakoa hark ulertzen duela, “eta hori beraientzako pauso oso handia da. Poztasun handia ematen die”. Euskaltegian ikasitako euskara eta kalekoa ulergarri egiten hasten zaien unea da, eta horrek gero klasean ere eragina izaten du.



Eman eta hartu. Denentzat da onuragarri esperientzia. Argazkia: Etumeta.

“Eragina du batez ere hartzen duten solturan, hiztegian, kaleko hizkera nabari zaie”, euskaltegitik diotenez. Eta kasu batean baino gehiagotan ikasleek tituluren bat ateratzeko zuten hasierako helburua lausotzen doa. Euskaraz aritu ahal izatea bihurtzen da haien erronka nagusia.

## Denontzat, onuragarri

Bidelagun edo “euskaldun zaharrei” Mintzalagunek zer ekarpen egiten dieten galdetuta, “asko eman omen die. Horretan jarraitzen dute. Dabiltzanek ikusten dute, euren papera oso garrantzitsua dela euskara ikasten ari direnentzat. Euskalgintzan ekarpen handi hori egin nahi dute”. Paper garrantzitsua dute mintzalagun taldeetan. Taldeko erreferentean bihurtzen dira eta.

## Mintzalagunen izen-ematea zabalik beti

Lerrook irakurtzen ari zareten bat baino gehiago izan zaitezkete Mintzalagunak; bidaiari zein bidelagunak. Informazio gehiagorako jo Usurbilgo Udaleko Euskara Sailera, Potxoeneara alegia; NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzara edo Etumeta- AEK euskaltegira. Hiru guneotan jasoko dituzue argibide gehiago. Edozein kasutan, parte hartzeko interesa duzuenok, euskaltegian datu pertsonalen orri bat bete eta egoki adierazi, zer ordu eta egunetan ahal duzuen parte hartu egitasmo honetan. Ez dago zertan euskaltegian matrikulatua egon beharrik, Mintzalagunen parte hartzeko.

Euskara ikasten ari denari euskaltegiak zehaztuko dioten gutxieneko maila bat izan behar du. Bidelagunak edo “euskaldun zaharrak” ez du irakasle izateko mailarik behar. Izen ematea urtean zehar, edozein unetan egin daiteke. Eta doan noski.

### Etumeta AEK Euskaltegia

- 607 609 379
- usurbil@aek.eus
- muntteri.blogspot.com.es
- aek.eus

### NOAUA! Kultur elkartea

- 943 360 321
- elkartea@noaua.eus

### Usurbilgo Udala, Euskara Saila

- Potxoenean
- 943 371 999
- euskara@usurbil.eus

# Zortzi film labur igandeko Laburbiran

27 udalerri bisitatuko ditu asteotan NOAUA! Kultur Elkartea kide duen Euskaltzaleen Topaguneak antolaturiko Laburbirak, euskarazko film laburren zirkuituak. Euskarazko sortzaileen lana ezagutaraztea da egitasmo honen helburua. Hamahirugarren edizioa, igande honetan, martxoaren 13an helduko da Usurbila.


**Zea Bingo filmeko irudia. Igande honetan, 19:00etatik aurrera Sutegin ikus ahal izango ditugu hau eta beste zazpi film labur gehiago.**

Urtero moduan, NOAUA!ren eskutik, azken urtean euskaraz ekoitzi diren 8 ikus-entzunezko lan ezagutzeko aukera izango duzue, arratsaldeko 19:00etan hasita Sutegiko auditorioan. Ekitaldirako sarrera doakoa izango da. Eroso jarri eta gozatu, euskarazko film laburren uzta berrienaz.

“Ate joka da hamahirugarrenez Laburbira! Aurten ere euskarazko zortzi ekoizpen fresko-fresko dakartza, hunkituko zaituzten istorio anitzez kargatuta. Izan ere, euskarazko ikus-entzunezkoen sortzaileek ez dute etenik, kalitatezko lanak egiten jarraitzen dute. Zeuk ere bertatik bertara ikusiko duzu: barrea, beldurra eta tximeletak piztuko zaizkizu sabelean ordu eta erdi inguruko emanaldi honetan. Geureaz gozatzeko prest?”. Honatx ikusi ahalko dituzuen lanak:

■ **Zea Bingo,** 2015 (5´). Ane Urkiola.
■ **Erreplika,** 2015 (14´30´´). Iñigo Gaiton Gonzalez de Txabarri.
■ **Jorrai,** 2015 (3´). Uda Films.
■ **Fishura,** 2015 (6´45´´). Yago Mateo.
■ **Bere bizitzetako bat**, 2014. (8´). Aitor Gametxo.
■ **Brunilda,** 2015 (12´50´´). Eriz Alberdi.
■ **Hartz Txiki**, 2015 (16´30´´). “The Arlotes”, Uraitz Soubies.
■ **Semeak**, 2015 (7´25´´). Iker Azkoitia.

Informazio gehiago: topagunea.eus/laburbira/

## NOAUA!ko bazkideen batzarra

2015eko balantzea egin, eta NOAUA! Kultur Elkarteak 20. urtemuga ospatuko duen 2016ko egitasmoei buruz jarduteko aukera izango dugu NOAUA!ko bazkideontzat, datorren astelehenean, martxoaren 14an deitu dugun urteko batzar nagusian:

■ Ordua: lehen deialdia 18:30ean; bigarrena, 19:00etan.
■ Tokia: Potxoenea.
■ Gai zerrenda:
✓ 2015eko memoria eta balantze ekonomikoa.
✓ 2016ko egitasmoak eta aurrekontuak.
✓ Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena.
✓ Galdera-erantzunak.

Deitzailea: NOAUA! K.E.

## Oharra

Martxoaren 18an argitaratuko dugu hurrengo NOAUA!. Gero bi astez ez da aldizkaririk izango. Oharrak edo zorion agurrak ekarri edo bidaltzeko azken eguna: martxoak 14 astelehena.
erredakzioa@noaua.eus



# Doinu anitz bildu ditu Soinurbilek

Eskerrak Musika Asteari, azken aste euritsu eta goibela girotu baitu Usurbilen. 12. Soinurbil, denetariko ekitaldiekin joan zaigu. EuskOrleans Dixie Band, Orfeoi Txiki, Lezoko Musika Banda eta Tolosako Musika Eskolen emanaldiekin edota “Izeba Tekla” ikuskizunarekin. Zumartek Usurbilgo Udalarekin batera antolaturiko Musika Astearen baitan ordea, kalean egitekoak zituzten hitzorduak baldintzatu ditu eguraldiak. Aterpe bila aritu da aurtengo Soinurbil.





**Aurreko igandean, Lezoko Musika Banda eta txistulari taldea Usurbilen aritu ziren. Lehenbizi kalejiran, eta ondoren emanaldia eskaini zuten frontoian. Kontzertuan, Usurbilgo txistulariak ere aritu ziren.**

## Usurbildar ugari Landarbasoren urteurrenean

Errenteriako abesbatzak 25 urte bete ditu eta urteurrena ospatzeko “Konplize ditut eta...” izeneko diskoa grabatu du. Aurreko astean aurkeztu zuten diskoa Donostiako Victoria Eugenia Antzokian. Eta gonbidatuen artean Zumarte Musika Eskolako lagun ugari: Iñaki Zugasti, Agurne Alkorta, Elixabete Eizagirre, Oihana Eizagirre, Maialen Pagola, Beñat Urteaga eta Ixak Arruti.

Euskal kantagintzan ezagunak diren beste hainbat lagun ere batu ziren Victoria Eugenia Antzokiko ospakizunera. Iñaki Salvador, Mikel Markez, Golden Apple Quartet, Amets Arzallus, Joxan Goikoetxea, Amaia Zubiria, Urval Ensemble, Kaabestri, Xabier Solano, Ana Urraka...



**Errenteriako Landarbaso abesbatzak “Konplize ditut eta” ikuskizuna eskaini zuen larunbatean, Donostiako Victoria Eugenia Antzokian. Usurbildarrik ere izan zen oholtza gainean.**

Patri
Patrienea jatetxea
· bazkariak EGUNERO
· afariak. asteazkenetik larunbatera
✆ 943 362725 · ✆ 688 690 361

ANTXETA
taberna-jatetxea
eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak
Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

AÑORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA
·komertzial instalazioak ·beira bikoitza
·segurtasun beirak ·dutxa-itxiturak eta irristailuak
·ispiluak ·barandak ·kristal mota guztiak...
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

# Datorren oporraldian, aspertzeko tarterik ez

Bi asteko oporraldi luzea izango dute haur eta gaztetxoek martxoaren 18tik aurrera. Atseden egunak abiatzearekin bat jarriko dira martxan aisialdiko ekimenok:


Aste Santuko egunetan, lagun giroan igarotzeko aukera ugari izango da.

### Aginagako Txokoak

Aginagako Eskola Txikiko Guraso Elkarteak, Usurbilgo Udalarekin elkarlanean datozen oporretarako antolaturiko txokoetan izen emateko azken egunak dira honako hauek:

■ Txokoetako egunak: martxoak 21, 22, 23, 29, 30, 31 eta apirilak 1.
■ Ordutegia: 09:00-13:00 edo 10:00-13:00.
■ Tokia: Aginagako ludoteka.
■ Izen ematea: martxoaren 11 baino lehen, aginaga@eskolatxikiak.org helbidean.
